

Batezbestekoa, moda eta mediana balioek honako hau adierazteko balio dute: zein zenbakiren inguruan biltzen diren zenbakizko aldagai baten balio banaketa azaltzen duten kopuruak.

Eman dezagun inkesta batean pertsonen adinari buruz galdetu dutela eta bildutako erantzunak honako hauek izan direla:  
 27, 35, 46, 18, 12, 34, 23, 45, 62, 34, 12, 45 eta 55

Batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko, balio horiek guztiak batu behar dira, eta emaitza balio horien zenbakiaz zatitu: Batezbesteko aritmetikoa edo  $X_m = (27 + 35 + 46 + 18 + 12 + 34 + 23 + 45 + 62 + 34 + 12 + 45 + 55) / 13 = 34,46$

Moda kalkulatzeko, balio bakoitza zenbat aldiz agertzen den ikusi behar da; kasu honetan, balio gehien maiztasuna "1" da, eta 45, 34 eta 12 balioetan, berriz, "2". Beraz, moda honako hau izango da: 12, 34 eta 45.

Medianak alde banatan uzten ditu balioen erdiak; mediana kalkulatzeko, lehenik txikienetik handienera ordenatu behar dira balioak: 12, 12, 18, 23, 27, 34, 34, 35, 45, 45, 46, 55, 62. Kasu honetan, 34 da mediana, ezkerretara eta eskuinetara 6na balio uzten baititu. Serieko elementuen kopurua bakoitia izan balitz, erdiko bi balioen arteko batezbestekoa kalkulatu beharko zen.

Balio askoren batezbesteko aritmetikoa kalkulatu behar denean, taula mota hau erabiltzea izaten da onena:

Eman dezagun bezero talde batek 1etik 15era baloratu behar duela zerbitzu baten kalitatea eta lortutako emaitzak honako hauek izan direla: 2,3,4,3,4,1,5,4,4,4,3,4,2,3,4,5,1,5,3,2.

Aldagaia: x	f: maiztasuna	f.x
1	2	2
2	3	6
3	5	15
4	7	28
5	3	15
	20	66

Aldagaiak izan ditzakeen balioak idazten dira.

Aldagai bakoitzaren maiztasuna kalkulatu da.

Aldagaiak maiztasunarekin biderkatzen dira eta produktu guztiak batzen dira.

66 emaitza balio kopuruaz zatitzen da ( $n = 20$ ).  
 $X_m = 66 / 20 = 3,3$

Moda "4" da, maizenik agertzen baita, 7tan hain zuzen ere.

